

IPURUAKO AUZOKO BILERA (Ipuruako Jubilatuen etxea, 2013/11/05)

<p>Elkarte gastronomikoetarako 5. edukiontziaz galdetu da.</p>	<p>Debabarreneko Mankomunitateak sentsibilizazio kanpaina berri bat egin du biohondakinen gaikako bilketarako bosgarren edukiontzia erabilerari begira. Kanpainaren helburuetako bat, horrelako elkarteek sortzen duten hondakin gehiena organikoa delako, gure eskualdeko elkarre gastronomikoetan edukiontzi hori erabil dezaten sustatzea da.</p>	<p>Alkatetza.</p>
<p>Kexatu egin dira San Kristobal auzoan txakur kakak daudelako.</p>	<p>Udaltzaingoari agindu garbi bat eman zaio: txakur-kaka jasotzen ez duten txakur-jabeei zehapena edo zigorra ezartzea.</p>	<p>Alkatetza.</p>
<p>Kexak Sostoatarren kaleko 1 behean dagoen gazteen lokalarengatik. Lokal mota horien araudia nola dagoen ere galdetu da.</p>	<p>Gazteen lokalek kezkatu egiten dute udala baina konponbide zaila du arazo horrek. Ordenantza bat dago lokal horien erabilera eta ordutegia arautzen duena. (Ordenantza ikusi nahi duena, eskura du udal webgunean eta Hirigintza sailean). Arazo zehatzen kasuan, salaketa berehala eta telefonoz egitea erregutzen da, Udaltzaingoak egiazta dezan.</p>	<p>Hirigintza</p>
<p>.- Kexa sartu da Santaiñes kaleko etxeetako fatxadan esekilekuak jarri direlako, denak osteko fatxadan jarri behar zirela adostu zenean.</p>	<p>Erropak fatxadan eskegitzea debekatuta dago Hiri Antolaketa Plan Orokorrean; plan horrek, etxe-sustapen berriak arropa esekitokiena barruko patioetan jartzera behartzen baititu. Santaiñes kaleko kasu horretan Planaren aurretik eraikitako etxe bat da, esekilekurik ez zuena. Hirigintzaren ikuspegitik fatxada biak berdinak dira, baina logikoa da arropa esekilekua osteko fatxadan egotea eta hala erabaki zuten komunitateek edo erkidegoek. Komunitatearen edo erkidegoaren erabakia da, beraiek hartu behar dutena.</p>	<p>Hirigintza</p>
<p>San Kristobal kaleko 2, 4, 6 eta 9. pegoretarako sarbidea hobetzeko proiektuaz galdetu dute.</p>	<p>Maiatzean adjudikatu zen arrapala mekanikoak jartzeko kontratua, eta urtea amaitu baino lehen jarriko dira martxan.</p>	<p>Obrak.</p>
<p>Egazelai sektorearen Urbanizazio Proiektuaz galdetu dute.</p>	<p>Urbanizazioaren aurreneko fasea –Construcciones Amenabar etxeak egindakoa- laister amaituko da. Egazelaian egin den urbanizazioarekin bide berri bat zabaldu da Fray Martin Mallea eta San Kristobal kaleak elkartzen dituen; horrela, hiriaren hiri-bilbea osatu egin da esparru horretan. Hurrengo urratsa, babestutako 65 etxebizitza horiek eraikitzea da, VISESAren kargu geratuko dena. Horren amaiera aldean egingo da urbanizazio lanen bigarren fasea. Urbanizazio-proiektua Obra Sailean kontsulta daiteke.</p>	<p>Obrak.</p>
<p>Hezetasuna eta ur-filtrazioak Makazkuatik Egigurentarren kalera doazen eskaileren pasoa.</p>	<p>Aztertu eta datozen jardunaldietarako utziko da.</p>	<p>Obrak.</p>

IPURUAKO AUZOKO BILERA (Ipuruako Jubilatuen etxea, 2013/11/05)

.Jazinto Olabeko parkearen proiektuaz galdetu dute.	Proiektua auzokoei aurkeztu zitzaizen. Obrak apirilean amaitu ziren.	Obrak.
J.A. Mogel kaleko 9, 10, 11 eta 12 zenbakiko etheen ostean dauden lorategiei lekua kentzeko eskatu dute, horrela, galtzadak leku gehiago izango luke.	Gaia aztertuta, aldaketa hori eginez gero inguru hartako aparkalekuetan eragina edukiko lukeenez (lekuren bat kendu egin beharko litzateke) ez da bidezkotzat ikusten lorategiei lekua kentzea.	Obrak.
Sostoatarren kaletik San Kristobal kalerako irispidea zaila dela salatu dute.	Han ez dago espaloi jarrai bat egiteko aukerarik aparkalekuak kentzen ez badira.	Obrak.
Kexak daude San Kristobal kalean txakur kakak daudelako.	Udaltzaingoari agindu garbi bat eman zaio: kaka jasotzen ez duten txakur-jabeei zehapena edo zigorra ezartzea.	Udaltzaingoa.
Arazoak daude J.A.Mogel kalean dauden katuei jaten ematen zaielako. Mogel	Kartelak jarri dira eta herritarrei hauxe azaldu zaie: Udal Ordenantzek debekatu egiten dutela jaten ematea, ez bakarrik katuei, baita usoei ere. Debeku horren arrazoia ez da zikinkeria-arazo hutsa, plagen kontrola udalari zaildu egiten zaiolako baizik (arratoi gehiago jatekoa botatzen denean).	Udaltzaingoa.
Kexak, Egigurentarren parkean, ostiral eta zapatu gauetan gaueko 10etatik aurrera futbolearen jolasten aritzen direlako. Noizbehinka boteloia ere egiten da.	Gaia kontrolatuko da. Arazo edo prolema zehatzen kasuan, salaketa berehala eta telefonoz egitea erregutzen da Udaltzaingoa egiazta dezan.	Udaltzaingoa.
Kexak Juan Gisasola kaleko 20an dagoen fruta-dendatik zarata ateratzen delako: zamalanak gauetz egiten ditu.	Garraiolari bat salatu da zamalanetan molestiak sortzearen eta, hasiera batez behintzat, arazoa konpontuztat ematen da.	Udaltzaingoa.
J.A. Mogel kaleko garajeen goiko aldean dagoen parkean botiloia egiten da.	Astburuetan udaltzainek alde edo inguru hura patruilatzen segituko dute. Arazo zehatzen kasuan, salaketa berehala eta telefonoz egitea erregutzen da, Udaltzaingoa egiazta dezan.	Udaltzaingoa.
Romualdo Galdos kaleko oinezkoen pasabideetan ikuspen gutxi dago zenbaki bakoitietatik bikoitietara gurutzatzerakoan.	Oinezkoen pasabidetik nolako ikuspena dagoen ikusi da eta behar adinakotzat hartu da.	Udaltzaingoa.
"Moxo"tik behera dagoen errepideko semaforoak denbora gehiago izatea iradoki da.	Bilera ondoren semaforo horri denbora gehiago eman zitzaion. Hori baino denbora gehiago emateak gainerako semaforo guztien denbora modu nabarian aldatuko luke.	Udaltzaingoa.
Etorri dira eta hauxe adierazi dute: Romualdo Galdos kaleko 18aren etxabearen, kanpoko aldeko B hizkian dagoen etxebizitzaren ondo-ondoan palmera batzuk daudela; hezetasuna eta itzala dakarkiotela etxeari, leihotik sartu eta hezetasunak hormetan ondoan sortzen dituela. Palmera horien orriak gutxienez inautzea eskaut dute, etxean duen hezetasun arazo hori konpondu edo, neurri batean behintzat, arintzeko.	Lan-agindua egin da palmerak inautzeko.	Zerbitzuak.
Aizarnako orubea gehiago garbitzea eskatu da (zikinkeria eta sasiak daude).	Orube pribatu bat da; horregatik, Udal Lantaldeak, bide publikora jausten diren sasiak garbitzen ditu, oinezkoen pasabidea zaildu	Zerbitzuak.

IPURUAKO AUZOKO BILERA (Ipuruako Jubilatuen etxea, 2013/11/05)

	dezaketenak. Kasu osasungaitzetan udalak baditu mekanismoak orube jabeari hura txukuntzea eta baldintza osasungarrietan mantentzea eskatzeko, baina ez da oraingo kasu hau. Hala ere, espedientea ireki da jabea orube hori garbitzera behartzeko.	
Arratoiak San Kristobal inguruan.	Udalerrian arratoiak akabatzeko ardura duenari abisua pasatu zitzaion eta, ahal zuen neurrian, inguru hartako arratoiak kentzeko egin beharrekoak egin zituen.	Zerbitzuak.
Horma oso zikina San Kristobal kaleko 23aren parean.	Horma garbitu zen.	Zerbitzuak.
Sasi eta sastraka asko San Kristobal kaleko 25aren eta 27aren parean dagoen ezpondan; autobideko zubiaren azpiraino sartzen da.	Ezponda garbitu da.	Zerbitzuak.
Argatxako Jardinetatik kale-garbitzeko makina pasatzea eskatu da.	Mankomunitatetik adierazi digutenez egunero garbitzen da eskuz eta astean behin makinarekin.	Zerbitzuak.
San Kristobal kaleko arrapala mekanikoak egoera txarrean daudela aipatu da, J.A. Mogel kaleko berregokitze obregatik.	Arrapala biak konpondu dira. Obrak amaitzen ez diren bitartean, bigarren arrapala estalita geratuko da berriro kaltetu ez dadin.	Zerbitzuak.
Kexak Santaiñes kalean labezomorroak agertu direlako, gehienak 2, 4, 6 eta 8 zenbakietako etxe-blokearen inguruan.	Desratizazio-desintsektazio arduradunak egin beharrekoak egin ditu inguru hartako labezomorroak akabatzeko.	Zerbitzuak.
J.A. Mogel kaleko garaje gainean dagoen parkeko pergola berriak ura ez du ondo biltzen.	Gaia aztertzen ari da arazoari konponbidea eman nahian, konponbide hori funtzionala eta, aldi berean, pergolaren estetikarekin bat etorriko dena izan dadin.	Zerbitzuak.
Zuloak daude Romualdo Galdos kaleko 18ko lorategian.	Zulo horiek bete egin dira.	Zerbitzuak.
Kexa Egiurentarren garajeak itoginak daudelako.	Udal teknikariek egindako txostena aztertu ondoren ondorio hau ateratu da: ez dela udal erantzukizuneko. Hala ere, arazo horiek konpondu litezke udalak plaza hobetzeko obrarena bere gain hartzen duenean.	Zerbitzuak.
Argatxako Jardinetan arbola handi bat jausi denez hura zegoen lekuan zerbait sartzea eskatu da.	Beste arbola bat sartu da.	Zerbitzuak.
Zezen Plazako eskailera mekanikoak sarritan hondatzen direla azaldu da.	Eskailera hura luzea da, berezia eta, gainera, aspaldikoa; bestetik, eskaileraren osagaiek ere higadura handia pairatzen dute: horiek denak izan dira azken hileotan izan dituzten matxura ugari horiek arrazoiak. Zuzentze-mantentzeko jardura batzuk burutu dira, besteak beste kateak ordeztu dira. Horren ondorioz, orain, eskailerak ondo dabilta.	Zerbitzuak.